

# Arau-idazketa elebidunaren beharra

*Itzultzaileek ez dute dena euskaratu nahi.* Izenburu horrekin plazaratu zuen Unai Brea kazetariak ARGIA(n (2143. zbk.) EAEko Administrazioako itzultzaileen aspaldiko kezka. Arazoa ez da horrenbeste itzulpengintzaren alde edo kontra azaltzea, itzulpengintzari neurria hartzea baizik.

OSKAR ARANA IBABE\*  
ZELAI NIKOLAS EZKURDIA

**EUSKARA EAEN** ofiziala bada, hizkuntza ofizialaren maila aitortu behar zaio benetan. Munduko edozein hizkuntza ofizialetan itzulpengintza tresna osagarri bat da, ez ordea ofizialtasun hori bermatzeko baliabide bakarra eta oinarrizkoena. Gure ustez, eztabaida horri ekin behar diogu eta bide berriak ezarri euskararen ofizialtasuna bermatzeko. Horietako bat testuen idazketa elebiduna izan daiteke.

Administrazioan lan egiten dugunontzat legeria da –legeak, erregelamenduak, aginduak, ebazpenak...– gure lanabes nagusia. Hori horrela izanik, lanabesaren kalitatea zaintzea ezinbestekoa da lanabes horrekin egindako lana kalitate onekoa izango bada.

Azken boladan hainbat tokitatik ohartarazi zaigu ezagutza hutsaren eta itzulpen hutsaren aldiak gaindituta daudela, azken 30 urteko esperientziak argi utzi baitu ez batak eta ez besteak ez dutela bermatzen euskal administrazioek euskaraz normaltasunez jardutea.

Asmoa joera horiek garaitzea bada ere, ez da inor harrituko esaten badugu gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan euskarazko legetestuak, oro har, itzulpenaren bidez sortuak direla. Alegia, legetestuak gaztelaniaz landu eta sortzen dira eta euskarazko itzulpena legea onartze-



ARGIA

**Itzulpenak ez du zertan bide desegokia izan behar legetestua dena delako hizkuntzan jartzeko. Horren adibide Europar Batasuneko legeria da.**

ko bidean izapide huts bat baino ez da, azkena.

Horrez gain, euskarazko legetestua itzultzaileak bakarrik egiten duen lanaren ondorio da, hau da, ez dago inolako harreman egituraturik legetestua landu eta sortu duten teknikari eta itzultzailearen artean.

Merezi du ohartarazteak itzulpena, berez, ez duela zertan bide desegokia izan behar legetestu bat dena delako hizkuntzan jartzeko. Horren adibidea Europar Batasuneko legeria

da. Europar Batasunean testuak gehienbat ingelesez eta frantsesez prestatzen dira, eta gero, itzultzaile talde batek estatuen gainontzeko hizkuntzetara itzultzen du. Gaztelaniaz irakurtzen ditugun Europako legetestuak, hortaz, itzulpen hutsa dira, baina egokiak dira eta funtzionatzen dute.

Eztabaidak, beraz, ez du zertan itzulpenaren aldekoa edo kontrakoa izan behar derrigorrez. Onartu beharra dago itzulpena oraindik ere

urte askotxotan euskal administrazioen lan-tresna izango dela lege-testuak Euskal Herriko hizkuntza ofizialetan egon daitezzen bermatzeko, alegia, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

### Kezka gehiegi erantzunik gabe

Eztabaidaren muina, hortaz, harago dago gure ustez: zein euskaratze-teknika erabili behar dugu Administrazioaren testuak ulergarriak eta zuzenak izateko? Zergatik beti testuak

Euskarazko lege-testua  
itzultzaileak bakarrik egiten  
duen lanaren ondorio da, hau  
da, ez dago inolako harreman  
egituraturik lege-testua landu  
eta sortu duten teknikari eta  
itzultzailearen artean

euskarara itzuli behar izate hori? Batzuetan euskaraz sortutako testuak gaztelaniara edo frantsesera ere itzul daitezke, ez ala? Korredakzio-teknikek badute tokirik gure eguneko jardueran? Nork izan behar du ardura administrazio-testua hizkuntza ofizialetan egon dadin? Beti itzultzailearen lana izan behar du ala teknikariek ere elebitasun-trebeziak landu behar dituzte zenbait kasutan haiengan ardura hori uzteko? Zein kasutan, ordea? Ezin liteke hizkuntzalari eta legelarien arteko harreman egituratu baten ondoriozko testua izan?

Beti bezala, galdera mordoxka eta erantzun biribilik ez. Hala ere, eguneroko esperientziak intuizioan oinarritutako hainbat bide jorratu behar direla esaten digu. Lehenbizikoa kalitatearena: lege-testuak –legeak eta dekretuak batez ere– sortzeko prozeduran bertan aintzat hartu behar da testu horrek euskaraz ere egon behar duela eta euskarazko testuak gutxienez gaztelaniazko kalitate bera izan behar duela.

Gaur egun, tamalez, legeak presartzeko indarrean dugun hainbat legetan kezka hori ez da jasotzen,

ikus esaterako Eusko Legebiltzarreko 8/2003 legean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena, edo Eusko Jaurlaritzaren Idazkaritza Nagusiak onartu zituen lege egitasmoak, dekretuak, aginduak eta erabakiak lantzeko jokabideetan. Ez batean ez bestean ez da aipamenik egiten lege-testuak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu behar izatearen inguruan eta horrek prozeduran ekarri beharko lukeen urrats eta kalitate kontrolei buruz. Hala ere, arau horiek Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko Legearekin uztartu behar dira eta lege horren 8. artikulua honela dio:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-agintek emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-agintek esku hartzen duten egintza guztiek eta baita Administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenek ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzten badute.

Lege-prozeduretan, gure ustez, hizkuntzak eta bere kalitateak trañera sistematikoa eduki behar dute eta erakunde horien guztien artean hizkuntzen kalitatea bermatuko duten bide egonkorrak eratu behar dira, prozeduraren urrats bakoitzean hizkuntzalari eta teknikarien arteko elkarlana bermatuz.

Bide hori da hain zuzen Europar Batasuneko legeria itzultzeko jarraitzen den bidea, besteak beste. Suitzan ere bide horri jarraitzen zaio, baita Kanadan ere. Euskal Autonomia Erkidegoak ere bide horri ekin beharko lioke, eta lehenengo urratsak teknikariak horretarako prestatzea izan beharko luke.

Nolanahi, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoa xede horretatik urruti badago ere, Jaurlaritzak badu hizkuntzalari eta legelarien arteko elkarlanerako esperientzia pilotu bat. Arau-idazketa elebidunerako esperientzia baliagarria izan liteke, eta esperientzia horren berri eman nahi izan genuen Deustuko

Unibertsitateak antolatutako jardunaldietan.

Azken hiru urteetan, Lehendakariordetzako legelari bat eta IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko itzultzaile bat elkarlanean aritu izan gara Euskadiren Eskumenak izeneko datu-basea euskaratzen (<http://ttiki.com/733>). Gernikako Estatutua onartu zenetik gaur arte Euskadik bereganatu dituen eskumenen inguruko informazio garrantzitsuen biltzen duen kontsultatresna da. Bertan, Administrazioaren

Gaur egun Euskal  
Autonomia Erkidegoa xede  
horretatik urruti badago  
ere, Jaurlaritzak badu  
hizkuntzalari eta legelarien  
arteko elkarlanerako  
esperientzia pilotu bat

arlo guztietako zereginei buruzko informazioa biltzen da, eta, euskaratzeko zeregin horretan, Administrazio-arlo guztietako hizkera juridikoa landu behar izan dugu.

Orobat jasotzen dira eskumen-eskualdaketetan sortu diren auziei buruz Konstituzio-azitegiak eman dituen epai batzuk, eta, hala, eskumenen inguruko konstituzio-zuzenbidearen hizkera ere landu behar izan dugu. Izan ere, datu-base honek etorkizuneko datu-base osoago baten aurrekaria izan nahi du.

Egitasmo honetan parte hartu dugun teknikariontzat oso esperientzia positiboa izan da eta beste saio batzuetarako aurrekari izatea gustatuko litzaiguke. Azpimarratzekoa da, zentzu horretan, arduradun politikoei eta zerbitzu-buruei izan duten pazientzia eta jarrera baikorra eta horri esker esan dezakegu gaur egun Eusko Jaurlaritzan posible ikusten dela arau-testuen idazkera elebidunen aldeko urratsak ematen hastea, duela urte batzuk ezinezko ikusten zena. ■

\*Itzultzailea eta legelaria.